



## ZERAINEN ETXEBIZITZAK ERRENTAN

### **NORK ESKA DEZAKE?**

#### **GAZTEEK:**

- 18 eta 35 urte artekoa bazara
- Etxebizitarik ez baduzu jabetzan
- Urteko 3.000 € eta 25.000 € arteko sarrerak baldin badituzu (zerga-oinarria/base inponible reguladora)

#### **ADINEKOEK:**

- 70 urte edo gehiago baldin baduzu.
- Etxebizitarik ez baduzu jabetzan.
- Urteko 3.000 € eta 25.000 € arteko sarrerak baldin badituzu (zerga-oinarria/base inponible reguladora).

### **ESKAERA EGITEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:**

#### **Etxebiden erregistratuta bazaude:**

- Etxebiden erregistro agiriaren fotokopia.
- NAN fotokopia.
- Errolda agiria non eta noiztik erroldatuta dagoen zehazten duena



ZERAINGO UDALA



### **Etxebiden erregistratuta ez bazaude:**

- 2018ko errenta aitortpena edo Ogasuneko ziurtagiri negatiboa.
- Eskatutako errentak betetzen dituzuela ziurtatzen duen agiria.
- Gipuzkoan edo Gipuzkoatik kanpo etxebizitzarik ez duzula ziurtatzen duen ziurtagiria.
- NAN fotokopia.
- Errolda agiria non eta noiztik erroldatuta dagoen zehazten duena.

Dokumentazioa aurkezteko azken eguna: 2019ko ekainak 30.

Dokumentazioa emailaz bidali behar da helbide honetara:

[zeraindezagunfundazioa@gmail.com](mailto:zeraindezagunfundazioa@gmail.com)

### **ETXEAK ESLEITZEKO PROZEDURA:**

- 8 etxebizitza emango dira alokairuan, 6 gazteentzat eta 2 adinekoentzat.
- Esleipen prozesua egin ondoren, gazteen etxeren bat hutsik geratuko balitz adinekoei esleituko litzaieke edo alderantziz.
- Betebehar guztiak betetzen dituztenek 100 puntu jasoko dituzte.
- Azken bi urtetan Zerainen erroldatuta egoteagatik 5 puntu jasoko dira.
- Azken bi urtetan Mutilo, Zegama, Segura edo Idiazabalen erroldatuta egoteagatik 3 puntu jasoko dira.
- Azken bi urtetan Goierriko beste edozein herritan erroldatuta egoteagatik puntu 1 jasoko da.
- Puntuazio berdina atera dutenen artean zozketa egingo da. Zozketa publikoa izango da.
- Etxea esleitu ondoren norbaitek atzera egingo balu zerrendan hurrengoari eskainiko zaio.